



Diktadura garaian desagerturiko hainbat gazteren argazkiak daude ikusgai parke bihurturiko Santiagoko Villa Grimaldi bahiketa eta hilketa zentroan. BAKEAREN ALDEKO VILLA GRIMALDI PARKEA

# Kartzelak lorategi

Azken urteotan, Argentinako eta Txileko giza eskubideen eta memoriaren aldeko elkarteek errepresio eta tortura espazioak berreskuratu dituzte, bake eta kulturaren bilgune bihurtzeko. Orain urte gutxi pentsaezina zen zer bait.

**‘Oroitzea berriz ere bihotzetik pasatzea da’**  
**Eduardo Galeano**

**Iolanda Parra - Sergi Picazo**  
Buenos Aires (Argentina) - Santiago (Txile)

**V**illa Grimaldi, Santiagoko kanpoaldean dago, eta 1973 eta 1978 urteen artean Pinochetek desagertarazi egin zituztela. Gaur egun, Villa Grimaldi, garai hartan Terranova Kuartela esaten ziotena, ez da izularria eta zorigaiztoa, baizik eta biktimen senitartekoen eta diktadu-

ran atxilotu zituztenek «berreskuratutako» Bakearen eta Memoriaren Aldeko Parke bat.

Armadaren Eskola Mekanikoa (ESMA) Buenos Airesen dago, eta 1976. eta 1982. urteen artean Argentinako militarrek erabilitako atxiloteta eta torturarako eremu klandestino bat izan zen. Lehenik, sarraskirako balio izan zuen, eta ondoren, kontzentrazio esparru erraldoi bat izan zen. Ikerketek ezagutarazi dute Videla, Masera eta Galtieriren erregimenak bahituriko 5.000 argentinarraren inguru igaro zirela handik; 150 soilik irten ziren bizirik. Gaur, ordea, Maiatzeko Plazako Amek eta Amonek —beste zenbait gizarte kolektiborekin batera— militarrek kanporatu dituzte, eta bertan sortu dute Memoriarako eta Giza Eskubideen Sustapenerako eta Defentsarako Espazioa.

Villa Grimaldik eta ESMAk,

hainbat urtez, Hego Amerikako izugarrikeriaren espazio erreala eta sinbolikoa irudikatu zuten. Han, Txileko eta Argentinako militarrek euren milaka herrikide bahiturik izan zituzten: atxilotuak bortxatu zituzten, akuilu elektrikoarekin torturatu zituzten, epaiketarik gabe exekutatu eta gorpuak desagerrarazi zituzten... Minaren eta sadismoaren tenpluak izan ziren. 30 urte geroago, biktimek eta haien senitartekoen historia aldatu ahal izan dute. Baina, betiko suntsitu, erre eta ahaztu ordez, okupatzea, berreskuratzea eta duin bihurtzea erabaki zuten. Nola eraldatu zuten sufrimendua bake, hilketa lorategi, ahantzura omenaldi?

1970eko hamarkadako diktadura militar odoltsuen ondoren, Txilen eta Argentinan bake, egia, justizia eta ordain prozesu ugari garatu dituzte, nahiz eta sarritan

modu paraleloan eraman dituzten aurrera. Diktaduratik atera berritan epaitu zituzten militarrek argentinarrak, eta, gaur egun, dozenaka epaiketa egiten dira epaitzeko dauden auziengatik; Pinochet haren ohean, zigorgabe nola hiltzen zen ikusi zuten txiletarrek. Argentinarrak *militar* koak kuarteletara bidali zituzten Malvinen ondoren, txiletarrek diktaduran zehar eginiko konstituzio bat eta Pinochetek bizi guttirako senatari eta Indar Armatuaren buru izaten jarraitzea iren tsi zuten bitartean. Txileko biktimek ordaina eta kalte-ordainak onartu zituzten, eta, 2000. urtean, Ricardo Lagos presidente sozialdemokratik barkamena eskatu zuen estatu krimenengatik; aldiz, Maiatzeko Plazako Amen eta desagertutako argentinarren seme-alaba gehienek ez zuten dirurik jaso nahi izan.

Demokraziarako bi trantsizioek badute antzekotasunik: memoriarekiko oinarritzko borroka eta biktimen omena. Txileko eta Argentinako gizarte zibilek azken bost urteetan militarrek lapurtu zutenaren zati bat, txikia baina sinbolikoa, berreskuratzea lortu dute, pentsa litezkeen errepresio eta tortura zentro beldurgarrietan bake eta kultura espazioak eraikiz.

## Bakea, Villa Grimaldin

Villa Grimaldi atxiloteta eta tortura zentroa Txileko memoriaren lekuri hungigarriena da. Norbera sarrerako burdin hesitik sartzen denean, jakitun da han sufrimendu eta min zenbatezina, jasanazina eta deskribaezina egon zela. Santiagoko kanpoaldean eta jende gutxi dabilen inguru batean kokatua, gutxi ikus zezaketen ateen barrualdean bizi zen sufrimendua. Diktadura erorita, militarrek lekua suntsitu eta utzi egin zuten. Baina izan zen sekula ahaztu ez zuenik. Ia 20 urtean, biktimen elkarteek eta giza eskubideen aldeko erakundeek lekua berreskurapena aldarrikatu



Buenos Airesko ESMA tortura gune erraldoiaren sarrera, egun. S. PICAZO



Maiatzeko Plazako Amen kartel bat, ESMAko sarreran. SERGI PICAZO



Villa Grimalditik bizirik irtendako batek atxilotuak egindako irudia. S.P.

zuten, memoriarako espazio gisara. Azkenean, borrokak emaitza eman zuten, eta doilorkeria haren historia berreskuratuzeko fundazio bat sortu zen. Beldurraren espazioetakoren bat berreraiki zuten —atxilotuak logela txiki-txiki kietan giltzapetuta egoten ziren dorre bat, esaterako—, eta gainerakoak eraldatu zituzten gaur egun Bakerako Parke gisara ezagutzen dena sortzeko. Hego Konoko diktadurari loturiko atxilotu zentroetan berreskuratzen lehena izan zen.

Helburua biktimak oroitzera eta omentzea zen, baina edertasun bilgarri batekin —loreak, iturriak, artelanak—, horrelako zerbaitek sekula errepika ez dadin. Gaur egun, gazteak, haurrak eta familia osoak hara joaten dira pasatzera, eta, bide batez, historia hori ikasten dute atxilotu ohien ahotan edo Memoriaren Aretoko informazio paneletan. Ez da leku geldia, ezta isiltasuneko ere. Ez da iluna, ez grisa, baizik eta bizia eta berdea. Han geratu zireneko dolua dago, baina beste asmo bat arnasten da: bizitzaren aldarrikapena, alaitasuna, kultura.

Bakerako Parkearen Direktorioko presidente Margarita Romerok dioenez, «Estatu terroristarekin loturiko iragana ezagutzeko eta, era berean, orainaldian izan dituen ondorioei buruz hausnartzeko espazio pribilegiatua» da. Funtzio historikoa, azaltzen

duenez, ez datza soilik han gertaturikoa azaltzean, «hausnarketa bat eta kontzientzia etikoa garatzeko elementuak ematean baizik». Gainera, Romeroren arabera, «funtzio konpontzailea» ere betetzen du. «Estatu terroristaren biktima izan zirenezat errepazio sinbolikorako espazio bat eskaini du lekuak».

Txileko azken bi gobernuen babetesa —Lagos eta Michelle Bachelet sozialistena— ezinbestekoa izan da, urte askotako lan militantea burutzeko. Bachelet presidente ohia izan zen Villa Grimaldi fisikoki zapaldu zuen herrialdeko lehen presidentea. Diktadura eraildako pertsona baten alaba, bere azalean pairatu zituen errepresioa eta erbetea Bacheletek. Berak debekatu zuen Pinochet hil zenean estatu hiletak egitea ere, eta militarren aurkako justizia auziak babestu zituen.

Villa Grimaldiko Bakerako Parkea Pinochet oraindik ere bizirik eta epaitu gabe zegoenean sortu zen. Eskuinak, zeinak Txilen sekula ez zion *pinotxetismoari* uko egin eta diktadurak desastre ekonomikotik salbatu zuela baieztatu izan duen beti, ahalegin guztiak egingo ditu Villa Grimaldi eta antzeko espazioak desagertzeaz. Txilen, erregimenaren nostalgikoak ez dira gehiegi ezkutatzen, eta «zauriak irekitzea» ez dela komeni azaltzen dute —baita hedabide handi batzuetan ere—.

Hainbat zauri sekula ez zirela itxi alde batera utzi. Gaur egun, Bakerako Parkeko Korporazioko kideak beldur dira Sebastian Piñeraren eskuineko gobernu berria lekuaren etorkizuna pitzatzen saiatuko ez ote den.

Botere politikoak biktimen elkarteetan eta Bacheleten beraren gobernuaren beste proiektu en-

**Erregimenak bahituriko 5.000 argentinari inguru igaro ziren ESMAtik; 150 soilik irten ziren bizirik**

**Memoriaren aldeko elkarteak beldur dira Txileko gobernu berriak har dezakeen jarreraz**

blematiko bat ere zalantzan jar lezake. Memoriaren Museoa, Santiago.

### Amak, ESMAN

Argentinan, memoriari buruzko diskurtso soziala, mediatikoa eta boterearena ezberdina da. Han inor ez da militarrek —eta haien laguntzaile zibilek— 70eko hamarkadaren amaierako diktadurari egindako basakeria, injustizia eta errepresioa ukatzera auzartzen. Sei urtean militarrek 30.000 pertsona desagerrarazi izate hutsak minaren maila adierazten du. Eta, Buenos Aires hirian

zeuden hogeitortura eta pertsonen desagertze zentro klandestinoen artean, bat nabarmentzen da bere dimentsio bereziagatik: Armadaren Eskola Mekanikoa: ESMA. Zazpi urtez erabili zuten espetxe sekretu gisara, eta tortura sistematikoaren, amatasun klandestinoaren eta atxilotuak bizirik itsasora jaurtitzen ziren Heriotzaren Hegaldien abiapuntu gisara ere. Hurrengo batean, herrialdeko kontzentrazio esparru handienetarikoa ere izan. Gaur egun, besteak beste, Maiatzeko Plazako Amen eta Amonen elkartearen aldarrikapen historikoari eta Nestor eta Cristina Kirchnerren gobernuaren azken babesari esker, ESMA Memoriarako Espazio berri bihurtu da, non Haroldo Conti Kulturagunea, memoriari buruzko artxibo bat eta giza eskubideen aldeko hainbat elkarte argentinarentzako egoitza sozialak dauden.

ESMAk eragindako biktimen helburuetako bat han gertaturikoa azaltzea da. Berriaz gerta ez dadin. Militarrek epaituak eta zigortuak izan daitezke. Sentiberatze metodoa ESMAren lekuri beldurgarri eta krudelenetan barenako bisita gidatuak dira. Esaterako, Armadako Ofizialen Kasinoko zaharra, krimenaren agertokiak eta zeina oraindik ezin den eraldatu izan, ezta bertan argazkirik atera ere, militarren aurkako hainbat epaiketarako

froga materiala delako. Gauza bera gertatzen da kirolen esparruan ere. Bertan auzitegi antropologoen talde bat erretako gorpuen aztarnarik baden ikertzen ari da. Ofizialen Kasinoren sotoan zegoen tortura gela, baita argazkien eta faltsifikazioen laborategia ere; eta teiltatuko ganbaran, *kaputza* ere deitua, non atxilotuak exekutatutako izan arteko ia denbora guztia igarotzen zuten.

Tortura gelak ez dira existitzen. Espazio hura hutsik dago egun, militarrek suntsitu egin zutelako eta krimenak egotzi ahal zizkien edozein gauza eraman zutelako. Bisita gidatuak ez dira deuseztatzen metodo ezberdinen morboan berregiten, eta ez dago tortura tresnen erreproduktzioa, ezta beldurrezko espazio harenik ere. Edonola ere, lekua beldurgarria da oraindik. Apur bat makurtuta sartu behar da. Hezetasun usaina dago. Hotz handia egiten du. Atxilotuak, eskuburdinekin, eta kaputzaz burua estalita, heriotzara bidean zihozazenean pasabideetan zuten kolore horizta dute oraindik hormek. Ziurrenik, ikusizuten azkena izan zen. Ofizialen Kasinotik ustez pasatu ziren 5.000 atxilotuetatik, 150 soilik irten ziren bizirik. «Hemen jasotako lehenengo sentipenak kirats iraunkorra, dagoeneko bertan zeudenean aienek, minezko negarrak eta larritasun oihuak izan ziren», dio bizirik irtendako Andres Castillok, sotoko kartel informatiiboetako batean idatzirik testigantzan.

ESMA berreskuratuzeko prozesua luzea, zaila eta konplexua izan zen biztanleriarentzat. Diktadura amaitu ostean, militarrek, matxinada batzuen bidez, ezer ez aldatzeko adinako boterea mantentzea lortu zuten. Carlos Menem gobernu neoliberala ESMAren hainbat eraikin eraisten saiatu zen 90eko urteetan, bertan Adiskidetzako Parke bat egin eta luzuko etxebizitza berriak eraikitzeko. Proiektua, baina, ustelkeria urbanistikorekin loturiko auzi baten zalantzek gerarazi zuten. Azkenean, 2004an, Kirchnerren gobernuak eztabaida berriz ere zabaltzea erabaki zuen. Hil berri den Nestoren lehen ekintzeta —bat Eskola Militarra joan eta oraindik ere militarren bulegoetako hormetan zintzilikaturik zeuden Videla eta Masseraren koadroak kentzea izan zen. 2004an, hainbat espazio eman zizkien Amei, eta, 2007an, Cristina Fernandez gobernuak geratzen ziren militarren kanporatu zituen —haien protestez gaindi—, eta Memoriarako Espazio berriaren kudeaketa udal gobernuak, estatuko gobernuak eta giza eskubideen aldeko hamabi elkarte osaturiko batzorde baten esku utzi zuten. Erabakiak adostasunaren bidez hartzen dituzten hiru akto-re. 2010etik, mundu guztiak biktimak omendu ditzake bertan.